


1 Angel Belakortu Sosoaga zara, Arrazibaleko Udaleko alkatea. Irailaren bostean (asteartea), eguerdiko hamabietan, ekitaldi bat izango da udal-liburutegi berrian, hain zuzen ere, liburutegi hori inauguratzeko.

Ekitaldi honetara Josune Losada Ibargutxi andrea gonbidatu nahi duzu. Presta ezazu, bada, gonbita.



A R I K E T A K

G R A M A T I K A

2 Aukera ugari badago ere, osa ezazu hitz elkartu bana bi zutabetan banatuta dauden hitzekin; baina, gogoan izan hitz batzuek bukaerako "a" gal dezaketela, beste batzuek marra hartu e.a.

1.- Literatura	1.- Elkartea
2.- Burdina	2.- Arazo
3.- Jaiotza	3.- Eskakizun
4.- Ardi	4.- Arau
5.- Ekonomia	5.- Tradizio
6.- Hizkuntza	6.- Biltzaile
7.- Natur	7.- Fabrika
8.- Ortografia	8.- Arrisku
9.- Zerga	9.- Kirol
10.- Herri	10.- Esne
11.- Autonomia	11.- Zientzia
12.- Kutsadura	12.- Kontrol

3 Hona, jarraian, zenbait hitz elkartu. Horietako batzuk ondo idatzita daude, eta beste batzuk, berriz, gaizki. Adierazi zein dagoen ongi eta zein ez, eta zuzendu zuzendu beharrekoa.

ONDO

GAIZKI

1.- *Euskal-mendi-elkartee*k ekintza ugari antolatzen dute urtean barrena.

.....

2.- *Berri-berriak* dira zerbitzura ekarri dituzten konputagailuak.

.....

3.- *Bulegoz-bulego* ibili izan arren, oraindik ez daki norekin hitz egin behar duen.

.....

4.- *Liburutegiko* apal horretan dauden liburu guztiak *argitaratu-berriak* dira.

.....

A R I K E T A K

ONDO

GAIZKI

5.- *Giza-mugimenduak sekulako indarra hartzen ari dira Euskal Herri osoan.*

6.- *Benetako neurriak hartu behar ditugu itsas hondakinei aurre egiteko.*

7.- *Lan-eske ibili da azken hilabeteotan, baina ez du ezer aurkitu.*

8.- *Eskuarteetan daukazun txostena utzi, eta joan zaitez nagusiarekin hitz egitera.*

9.- *Aldian aldi egiten ditugu honelako lanak.*

4 Ondorengo hitz elkartuak marrarik gabe eta banatuta daude. Marra jarri, lotu edo banatuta utzi, baina proposatutako gomendioen arabera.

1.- *Aita amak*

2.- *Lan hitzarmen*

3.- *Vitoria Gasteiz*

4.- *Euskal Autonomi Elkarte*

5.- *Diru bilketa*

6.- *Han hemenka*

7.- *Erdal testuak*

8.- *Hezkuntza arloa*

S O L U Z I O A K

1

NIK, ARRIZABALEKO UDALEKO ALKATEAK

atsegin handiz gonbidatzen zaitut, Josune Losada
Ibargutxi, udal-liburutegi berriaren inauguraziora.

Eguna: 1995-09-05 (asteartea)

Ordua: 12:00

Tokia: udal-liburutegiaren egoitza

Nik, Angel Belakortu Sosoagak, bide batez, nire
onginahia adierazten dizut.

Arrizabal, 1995eko uztailearen 28an

2

- 1.- Literatur tradizioa / Literatura(-)tradizioa
- 2.- Burdin fabrika / Burdina(-)fabrika
- 3.- Jaiotza-kontrola
- 4.- Ardi-esnea
- 5.- Ekonomi arazoak / Ekonomia(-)arazoak
- 6.- Hizkuntz eskakizuna / Hizkuntza(-)eskakizuna
- 7.- Natur zientzia / Natura(-)zientzia
- 8.- Ortografi arauak / Ortografia(-)arauak
- 9.- Zerga-biltzailea
- 10.- Herri-kirolak
- 11.- Autonomi elkarteak / Autonomia(-)elkarteak
- 12.- Kutsadura-arazoak

ONDO	GAIZKI
------	--------

3

- 1.- *Euskal-mendi-elkarteek ekintza ugari antolatzen dute urtean barrena.*
Euskal mendi-elkarteek ekintza ugari antolatzen dute urtean barrena.
- 2.- *Berri-berriak dira zerbitzura ekarri dituzten konputagailuak.*
Berri-berriak dira zerbitzura ekarri dituzten konputagailuak.
- 3.- *Bulegoz-bulego ibili izan arren, oraindik ez daki norekin hitz egin behar duen.*
Bulegoz bulego ibili izan arren, oraindik ez daki norekin hitz egin behar duen.
- 4.- *Liburutegiko apal horretan dauden liburu guztiak argitaratu-berriak dira.*
Liburutegiko apal horretan dauden liburu guztiak **argitaratu berriak** dira.
- 5.- *Giza-mugimenduak sekulako indarra hartzen ari dira Euskal Herri osoan.*
Giza mugimenduak sekulako indarra hartzen ari dira Euskal Herri osoan.
- 6.- *Benetako neurriak hartu behar ditugu itsas hondakinei aurre egiteko.*
Benetako neurriak hartu behar ditugu **itsas hondakinei** aurre egiteko.
- 7.- *Lan-eske ibili da azken hilabeteotan, baina ez du ezer aurkitu.*
Lan eske ibili da azken hilabeteotan, baina ez du ezer aurkitu.
- 8.- *Eskuarteetan daukazun txostena utzi, eta joan zaitez nagusiarekin hitz egitera.*
Esku artean daukazun txostena utzi, eta joan zaitez nagusiarekin hitz egitera.
- 9.- *Aldian aldiaren egiten ditugu honelako lanak.*
Aldian-aldian egiten ditugu honelako lanak.

4

1.- *Aita amak*
Aita-amak

2.- *Lan hitzarmen*
Lan-hitzarmen / Lan hitzarmen

3.- *Vitoria Gasteiz*
Vitoria-Gasteiz

4.- *Euskal Autonomi Elkarteak*
Euskal Autonomi Elkarteak

5.- *Diru bilketa*
Diru-bilketa / Diru bilketa

6.- *Han hemenka*
Han-hemenka

7.- *Erdal testuak*
Erdal testuak

8.- *Hezkuntza arloa*
Hezkuntza-arloa